

PRENTSA OHARRA

Zirauki, 2025eko urriak 7

Zirauki eta Mañeruko udalek ‘Ordeas Valdemañeru’ aurkeztu dute, sareko lankidetzan eta gobernantzan oinarritutako toki-garapenerako estrategia

“La Caixa” Fundazioaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren Innova Programak hautatu eta babestu du proiektua, eta udal-prozesu parte-hartzaileak udalaz gaindiko herritarren parte-hartzerako sistema egonkor bilakatuko ditu erronka komunei aurre egiteko, hala nola despopulazioari eta zahartzeari.

Zirauki eta Mañeruko udalek indarrak batu dituzte ‘Ordeas Valdemañeru’ abian jartzeko, ibarrerako gobernantza eredu egonkor eta parte-hartzaile baten oinarriak ezarri nahi dituen proiektu berritzailea. Herritarren parte-hartzea indartu eta jarraipena emateko helburuarekin sortu da ekimena, 2024an eta 2025ean Tokiko Garapen Estrategiak lantzea ahalbidetu zuten ‘Zauzolan’ (Zirauki) eta ‘Ordeas’ (Mañeru) prozesu parte-hartzaileek izandako arrakastaren ondoren. Udaleko, talde teknikoko, Innova programako eta proiektuan parte hartzen duten erakunde publiko eta kolektibo ugarietako ordezkariak izan dira gaur Ziraukin egin den aurkezpenean.

Ekimena Mañerun, “Ordeas” prozesuarekin, eta Ziraukin, “Zauzolan”-ekin, bildutako esperientzian oinarritzen da. Prozesu horietan bizilagunak mobilizatu zituzten diagnostikoak egiteko eta proposamenak biltzeko, etxebizitzarekin, hiri-hobekuntzarekin, energia berritzagarriarekin, mugikortasun iraunkorrarekin, gizarte-espazioekin, zerbitzuak ematearekin, euskararen sustapenarekin, suteen prebentzioarekin eta abarrekin lotutako tokiko proiektuak garatzeko. Guztira, 900 herritarren parte-hartzeari esker, sistema berri baten oinarriak ezarri ziren. Orain, jauzi kualitatibo bat eman da, garatu beharreko proiektuen esparrua bi herrietara zabaldu baita.

Udalaren mugak gainditzen dituzten despopulazioa, herritarren zahartzea, mugikortasuna edo zerbitzuetarako sarbidea bezalako erronka partekatuen aurrean, ‘Ordeas Valdemañeru’-k udal ikuspegi batetik **udalaz gaindiko estrategia** batera eboluzionatzea proposatzen du. Proiektuak 150.000 euroko hasierako finantzazioa du lehenengo bi urteetarako (%80a Innova programatik, eta gainerakoa, udaletatik), eta hainbat urtetan garatuko da 2028ra arte, hiru etapatan egituratuta. Ordeas esparruan garatutako proiektu batzuek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza dute.

Hiru etapa

Lehen etapan (2025-2026) **gobernantza-sistema** bat diseinatuko eta esperimentatuko da. Etapa honetan, herri bakoitzean tokiko kontseiluak, lantaldeak, tokiko foroak eta haran-kontseilu bat sortuko dira, udalaz gaindiko koordinazio-organo gisa. Sistema hori Toki Garapeneko Estrategiaren 2026ko Urteko Planaren inplementazio parte-hartzailearekin proban jarriko da.

Bigarren etapan (2026-2027), proiektuak sistema sendotzeko lan egingo du, **Herritarren Partaidetzako eta Ekintza Komunitarioko Udal Ordenantzak** idatzi eta onartuz, aldaketa politikoetatik harago ereduaren egonkortasuna bermatzeko. Bigarren fasean, gainera, herritarrek eta erakundeetako ordezkariak trebatuko dira, prozesuaren autonomia bermatzeko.

Innova Programaren finantzaketatik kanpo dagoen hirugarren etapa batek (2027-2028), sistemaren eragina ebaluatuko du eta hurrengo ziklorako garapen-estrategia diseinatuko du, **epe luzerako iraunkortasuna** ziurtatuz.

Gobernantza-egituraz gain, komunikazio-hedapen zabala du proiektuak: nortasun bisual propioa, material inprimatu eta digitalak, ordeas.com webgunea eta erabaki.valdemañeru.es plataforma. Horiei esker, dokumentuak kontsultatu, prozesuetan parte hartu eta akordioen jarraipen gardena egin ahal izango da.

Kogobernantza sistema

‘Ordeas Valdemañeru’ kogobernantza sistemagatik bereizten da. Herritarrek, erakundeek eta lurraldeko eragileek etengabe laguntzen dute bailararen plangintzan eta garapenean.

Ekimenak tokiko erakundeen, mankomunitateen, elkarten eta inguruko enpresa-sarearen babesa du, bai eta kooperatibek eta gizarte-ekonomiako enpresek osatutako talde tekniko batena ere. Talde horrek parte-hartzeari, ingurumen-iraunkortasunari, arkitekturari, hirigintzari, energiari, komunikazioari eta digitalizazioari buruzko ezagutza eskainiko du.

Mañeruiabarrek administrazio talde bat dauka, eta horrek proiektu bateratuak martxan jartzea erraztu dezake, etorkizunean bailarako beste bi udalak batu ahal izango liratekeelako: Artazu eta Girgillao.

‘Ordeas Valdemañeru’ proiektuarekin, Ziraukik eta Mañeruk, tokiko demokrazia eta beren lurraldearen erresilientzia indartzeaz gain, **eredu erreplikagarri** bat sortu nahi dute antzeko erronkei aurre egiten dieten Nafarroako landa-eremuko beste udalerri batzuentzat.

Aurkezpenean, Mañeruko alkate Itziar Martinez Arbeloak eta Ziraukiko alkate Peio Apesteguía Arrazak azpimarratu dute *Ordeas Valdemañeru* ez dela proiektu isolatu bat, epe luzerako apustu estrategiko bat baizik. “Gure bailararen etorkizuna elkarrekin eta herritarrekin planifikatzeko aukera emango digun gobernantza sistema garatu nahi dugu”, adierazi dute.

Nommadeko, talde teknikoaren enpresa koordinatzaileko, Axel Moreno Gálvezek, nabarmendu duenez, “landa-eremuko udalerrietan gobernantza-prozesuak bultzatzea

ez da soilik aukera bat, lurraldearen jasangarritasuna, garapena eta erresilientzia bermatzeko behar bat baizik”.

Azkenik, Fernando Urrea Goñik, Innovaren izenean, adierazi du “Innova programak eta halako proiektuek Nafarroako Kutxa Fundazioari eta "la Caixa" Fundazioari aukera ematen dietela Nafarroako lurralde osoarekin duten konpromisoa betetzeko. Gainera, landa-eremuetan finkatzen diren pertsonen eta erakundeen balioaren eta gaitasunaren erakusgarri onak dira”.

GAKO BATZUK

Zer da Ordeas Valdemañeru?

Ordeas Valdemañeru Zirauki eta Mañeruko udalen arteko lankidetzaproiektu bat da, herritarren parte-hartzearen bidez eta tokiko beste eragile batzuekin lankidetzan, lurraldeko erronka nagusiei aurre egiteko politika partekatu eta iraunkorrak sortzeko: despoblazioa, zahartzea, mugikortasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta zerbitzuen hobekuntza.

Zein udalerri parte hartzen dute?

Hasiera batean Zirauki eta Mañeruk, etorkizunean bailarako beste udalerri batzuk integratzeko aurreikuspenarekin.

Zer esan nahi du “Ordeas” hitzak?

“Ordeas” terminoa euskarazko “orde”-tik dator (trukean, -en orde). Mañeruibar aldean, “nik zugatik, zuk niguatik”, elkarlanaren eta laguntzaren bidez lankidetzan aritzeko tokiko tradizioa izendatzeko erabiltzen den esamoldea da.

Zeintzuk dira helburu nagusiak?

Hauek dira Ordeas Valdemañeruren helburu nagusiak:

- Tokiko eta udalaz gaindiko gobernantza-sistema finkatzea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea erabakiak hartzeko eta alternatibak garatzeko orduan.
- Udalerrien arteko lurralde-kohesioa indartzea.
- Lurraldeko erronkei elkarrekin aurre egitea.

Nork har dezake parte?

Ordeas Valdemañeru-n lurraldeko eragile guztiek har dezakete parte.

Nola har daiteke parte?

Hainbat gune eta kanalen bidez antolatuko da parte-hartzea:

- Tokiko kontseiluak udalerri bakoitzean.
- Gaikako lan-taldeak.
- Tokiko foroak eta tailer parte-hartzaileak, herritar guztiei irekiak.
- Ibarreko Kontseilua, udalaz gaindiko organo gisa.
- Parte-hartze eta gardentasun kanal digitalak: ordeas.com, erabaki.valdemañeru, sare sozialak eta udal webgunea.

Norkosatzen du talde teknikoa?

Ordeas Valdemañeruko talde teknikoa Nafarroako ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek edo beren jardura lurraldean garatzen dutenek osatzen dute:

- Nommad: proiektuaren koordinazio orokorra eta aholkularitza herritarren parte-hartzean eta politika publikoetan.
- Orekari: arkitektura bioklimatikoa, hirigintza eta gizarte-ikuspegia duten lurralde-azterketak.
- Goienar: energia berriztagarrian eta herritarren trantsizio energetikoan espezializatutako kooperatiba.
- Agresta: ingurumen- eta basogintza-aholkularitza, klima-alaketara egokitzea eta lurraldearen kudeaketa iraunkorra.
- Aise: talde-prozesuak erraztea, parte-hartzea eta dinamizazio kolektiboa.
- Voilà: diseinu grafikoa eta ilustrazioa, identitate bisual eta komunikazio-materialetarako.
- Efecto Mariposa: proiektua komunikatzeko eta hedatzeko estrategia.
- Aniracode: parte hartzeko plataforma digitalerako programazioa eta euskarria.

Nork/Zeinek laguntzen du projektuan?

Udal sustatzaileez gain, Ordeas Valdemañeruk udalaz gaindiko beste eragile instituzional batzuen laguntza du: Valdemañeru Elkartea, Izarbeibarko Mankomunitatea, Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, TEDER, Lizarraldeko Turismo Partzuergoa eta Garesko Osasuneko Oinarrizko Eskualdea, besteak beste.

Zerk egiten du berritzaile?

Ordeas Valdemañeru berritzaile egiten duten arrazoiak:

- Parte-hartze prozesu puntualak gobernantza sistema egonkor bihurtzen ditu, parte-hartze egitura iraunkorrekin eta udal ordenantzekin.
- Lankidetzaren publiko-soziala eta publiko-pribatua indartzen ditu, baliabideak optimizatuz eta lurralde-erresilientzia sortuz.
- Erakusten du landa eremuan posible dela gobernantza inklusiboa, hurbila eta eraginkorra bultzatzea.
- Ekonomia sozial eta solidarioa, konpromiso klimatikoa eta narratiba komunitarioak integratzen ditu, baliabideen kohesioa eta identitatea indartuz.

Informazio gehiago

Ordeas Valdemañeru: ordeas.com

Erabaki Valdemañeru: erabaki.valdemañeru.es

Komunikazio-Bulegoa: Efecto Mariposa Comunicación | Eva Chourraut Aguirre |
6874215

